

'Basoko gizakiaren' bizitza Borneon, Indonesian



Uzt. 27 2021

Kod. W05-21

Mod.:

Online zuzenean Aurrez aurrekoa

Edizioa

2021

Jarduera mota

Jarduera irekia

Data

Uzt. 27 2021

Kokalekua

Miramar jauregia eta online zuzenean

Hizkuntzak

Gaztelera

Antolakuntza Batzordea

Azalpena

Orangutanak, edo "Basoko Gizakiak", bere habitataren zati handi bat galdu du: Borneo eta Sumatrako basoak. Karmelek bere esperientzia kontatuko digu, 17 urte baino gehiago eman baititu orangutanak erreskatatzen eta berreskuratzen, habitatera itzultzeko.

1999 eta 2015 artean, Borneoko 100.000 orangutan baino gehiago desagertu ziren, habitata galdu eta zatitu zelako, isileko ehizatagatik eta espezie basatien legez kanpoko salerosketagatik. Gainbehera hori geldiarazten ez bada, 2025erako biztanleriaren % 82 desagertuko dela kalkulatu da. International Animal Rescue (IAR) erakundearen helburua tximino handi horien zein Borneoko beste espezie batzuen desagertzea saihestea da, tximino sudurrandia eta pantera lainotsua, kasurako. Bukit Baka Bukit Raya Parke Nazionalaren kontserbazio-programa baten bidez babestu nahi dituzte. Parke Nazional hori babeserako balio handiko baso tropikaleko eremu bat da (200.000 hektarea), "Borneoko bihotza" izeneko eremuan dagoena.

Karmele Llanok [BBVA Fundazioaren Biodibertsitatea Zaintzeko Munduko Saria](#) saria jaso du Borneon orangutanak berreskuratzeko egindako lanagatik. Gainera IAR Indonesiako burua da, orangutanak eta mehatxatutako beste espezie batzuk kontserbatzen dituen erakundea, eta gaur egun 270 pertsonak baino gehiagok lan egiten dute bertan. Bere taldearekin batera, 50 erreskatatutako orangutan baino gehiago naturan berriz sartzea lortu dute. Gainera, erakunde horrek tokiko komunitate indigenen osasuna, hezkuntza eta enplegua bultzatzeko programa bat sortu du, tximino handi horien mende dagoen Borneoko ekosistemaren hondatzea geldiarazteko.

Ikastaroaren laguntzaile espezifikoak



Programa

2021-07-27

Eva Caballero kazetariak hizlariekin elkarrizketa izango du hitzaldia amaitutakoan /
La periodista Eva Caballero mantendrá un diálogo con los ponentes una vez
finalizada la conferencia

18:00 - 19:00

“La vida del ‘humano del bosque’ en Borneo, Indonesia“

Karmele Llano Sanchez | Directora de la organización IAR (International Animal Rescue)
Indonesia y Premio Mundial a la Conservación de la Biodiversidad de la Fundación BBVA.

Irakasleak



Karmele Llano Sanchez

Director of IAR (International Animal Rescue) Indonesia

Bilbon jaioa. Albaitartiza karrera Leonen burutu ondoren, Kontserbazioko Albaitaritza Medikuntzako Masterra lortu zuen Murdocheko Unibertsitatean eta, gaur egun, Albaitaritza Medikuntzako Doktoretzarako ikasketak egiten jarraitzen du Free Universityn, Berlinen. 2000. urtean, boluntario gisa lan egin zuen Venezuelan, animalia basatiak erreskatatzeko zentro batean. 2002an, Sokrates Beka lortu zuen, eta primateak berreskuratzeko zentro batean lan egin zuen Herbehereetan. 2003an, Indonesiara joan zen, eta han espezie basatiak erreskatatzeko eta berreskuratzeko hainbat zentrotan lan egin zuen. 2006an, Indonesian, primateak berreskuratzeko proiektu bat hasi zuen, eta, horrela, IAR Indonesia Fundazioa sortu zuen. Ordutik han zuzendari moduan egiten du lan. Karmelek eta IAR Indonesiako bere taldeak biodibertsitatea kontserbatzeko eta babesteko hainbat proiektu dituzte, besteak beste Kalimantanen orangutanak erreskatatu eta berreskuratzeko. BBVA Fundazioaren Biodibertsitate Saria irabazi du.

Matrikula prezioak

IZEN EMATEA - ONLINE ZUZENEAN

2021-07-27 ARTE

[MATRIKULA DOAN](#)

0 EUR

Kokalekua

Miramar jauregia eta online zuzenean

Miramar jauregia eta online zuzenean

Gipuzkoa